

PLE 02-MAR-23 (4/CP)

**IRUÑEKO UDALAREN 2023KO AURREKONTU LUZATUAN
DIRULAGUNTZEN BIDEZ FINANTZATUTAKO KREDITU-
SORRERAK**

PLE 02-MAR-23 (4/CP)

«IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat dirulaguntzen bidez finantzatutako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baitzen) eta indarreko Aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrerak onestea 2030 Agenda sustatzeko ekintzetarako, guztira 160.958,01 euroko zenbatekoarekin, Estatuko dirulaguntzen bidez finantzatuak, xehetasun hauekin bat:

Gastuak		Finantzazioa (diru-sarrera)	
Partida	Zenbatekoa	Partida	Zenbatekoa
11/92250/120090 Funtzionarioen oinarriko ordainsariak	21.300,00 euro	20/42090 Estatuaren beste transferentzia batzuk	21.300,00 euro
11/92250/227060 Kontratuak, azterlanak eta lan teknikoak	136.028,01 euro	20/42090 Estatuaren beste transferentzia batzuk	136.028,01 euro
11/92250/226990 Beste hainbat gastu	3.630,00 euro	20/42090 Estatuaren beste transferentzia batzuk	3.630,00 euro

2.- Kreditu-sorrera onestea 40/17212/227060 partidan (Agenda 21. Kontratuak, azterlanak eta lan teknikoak), Iruñearen 2025eko Hiri-birnaturalizaziorako (RUNA2025), 144.345,00 euroko zenbatekoarekin, Europar Batasunaren dirulaguntzen bidez finantzatua (diru-sarreraren 20/79700 partida).

3.- Kreditu-sorrera onestea 40/13400/227060 partidan (Mugikortasuna. Kontratuak, azterlanak eta lan teknikoak), Isurketa Baxuko Eremuetarako, 26.774,41 euroko zenbatekoarekin, Europar Batasunaren dirulaguntzen bidez finantzatua (diru-sarreraren 20/79700 partida).

4.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean»